

MARTIN ELORZA GOTZAINA

1

Etkez ta lurrez txikia baina
giza-balorez beteta,
Euskal herrian ezaguna da:
Intxortapeko ELGETA.
Mendi ganean dago
duintasunes gorago,
hartu ikusteko beta.
Lurrez Gipuzku-barruan dago,
bizkaiera du hizketa.

2

Gora Elgeta zoragarria”
kantuz gaude elkarrekin,
bertako gizaseme haundi bat
gaur ahaztuta utzi ezin.
Azulako landare
herriaren ondare,
txaloz eta oihuz ekin:
Zure omenez gaude gaur hemen,
Azulako Aita Martin.

3

Goizean hartu esne-kantina
eta korri Eibarrera,
kaleko lanak buka orduko
lehen bezain azkar etxera.
bidean zerbait jenez
ta eskolara joanez,
han behean dago Ubera....
non bukatuko ote du honek
hor hasitako karrera?

4

Ikusgarrizko giza-landare
lerden bezain azkarra,
amets antzeko zerbaitek hartu
zion barruan indarra:
Martin Pasionista
ustegabe albista,
hoska barrubean harra;
azkenerarte jarraituko du
dizdizka duen izarra.

5

Sartu zenetik hor dabil Martin
pozik eta dizdizari,
meza emanda mila arlotan
arduradun eta gidari.
Gorputzez zen lerdena
ta bihotzez zuzena,
bada testigu ugari;
beretzat beti zorrotza eta
besteentzat zerbitzari.

6

Pasiotarren Elkarteari
jarri zion oinarria,
baina horrekin gure Martinek
ezin ase egarria.
Kolonbia aldean
misiolari lanean
zeukan bihotza jarria;
uste baino ganean zuen
baso-gotzain-uztarria.

7

Urez ta lurrez hara ta hona
artzai ona ardi bila,
etxe, eskola, eliz, hospital
jasotzen maixu abila.
Indioen cultura
beregantzen ardura,
langile on ta isila.
Pozik hartuko genuke nunahi
holako artzai-mutila.

8

Hirurogeita zazpi urtetan
ahal zuen dena emanda,
honuntz etorri zen egunean
berean haruntz joan da.
Egiak egi dira,
ez dugu jo erdira,
ez da izan propaganda;
Han eta hemen denak diote:
“Martin santua izan da”

A. Martzel